

2006KO EKAINAREN 8KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko ekainaren zortzian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olasso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko dira Inazio Estensoro Eskisabel eta Xabier Arrasate Aierbe zinegotziak bertaratzen direneko uneak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, Alejandro Crespo Gallego zinegotziak bere zinegotzi karguari uko eginez Udaletxean aurkeztutako idatziaren berri ematen du. Gehitzen du Alejandro Crespo Gallego, PSOEko zerrendan dagoela eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak bere kargua uztearen ondorioz Hauteskude Batzorde Nagusiak izendatu zuela baina kargurik ez zuela eta karguari uko egin dionez berriro ere beste izendapen bat egin dezan eskatu beharko zaiola Hauteskude Batzorde Nagusiari.

Osoko Bilkura jakinren gainean gelditzen da.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- HIRIGOIENGO BIRRURBANIZAZIO LANEN 7. ZERTIFIKAZIOA.-

Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisa-sola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen zazpigarren zertifikazioa luzatu du. Zazpigarren zertifikazioaren zenbatekoa EHUN ETA HAMALAU MILA HIRUEHUN ETA HAMABI EURO eta BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMOtakoa (114.312,57 €) da. Lan Hauek GAIMAZ, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen zazpigarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

IV.- SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUKO URBANIZAZIO LANEN ESLEIPENA.-

San Prudentzio Ermita inguruko Urbanizazio Proiektuaren lanak, prozedura irekia eta lehiaketa publikoaren bidez esleitzeko kontratazio espedientearen prozedura nola dagoen ikusi ondoren.

Horretarako irekitako denboraldian honako 3 eskeintza hauek aurkeztu zirela:

- CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.
- FONORTE, EMPRESA CONSTRUCTORA, S.A.
- CONSTRUCCIONES FRESNEDA, S.L.

eta hauetatik guztiak onartu direla baina bestalde kontratazio mahaiak FONORTE, EMPRESA CONSTRUCTORA, S.A.ren eskeintza ekonomikoa baloratu ezinezkoa dela adierazi duela, eskeintza baldintza pleguak ezarritakora ez delako lotzen.

Guzti hau kontutan izanda, Kontratazio Mahaiak, baloratu diren proposamenetatik Udalarentzat eskeintzarik abantailatsuena izateagatik, esleipena Construcciones Donosti, S.A.ri egitea proposatzen duela kontutan izanda.

Une honetan Xabier Arrasate Aierbe zinegotzia bertaratu da.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen 85etik 89ra dihoazten artikuluak ikusi ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunez, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Lizitazio egintza ontzat ematea.

Bigarrena.- San Prudentzio Ermita inguruko Urbanizazio Proiektuaren lanak burutzeko lehiaketaren esleipena Construcciones Donosti, S.A.ren alde egitea aurkeztutako eskeintza udalarentzat abantailatsuena izateagatik, ZORTZIEHUN ETA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA SEI euro eta HAMAHIRU zentimotan (814.886,13 €), %16ko B.E.Z. barne, lizitazio oinarriarekiko %1,19ko baja suposatzen duelarik.

Hirugarrena.- Esleitzailari akordio hau jakinarazten zaionetik 15 egun naturaletako epean behin betiko bermea eta baldintza pleguan adierazten den gainontzeko dokumentazioa jarri beharko duela adieraztea.

Laugarrena.- Dagokion administrazio kontratua izenpetua izan dadin Alkatea eta Idazkaria behar den zabaltasunez ahalmentzea.

V.- SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUKO URBANIZAZIO LANAK BURUTZEKO PEÑAGARICANO ETXEGILEAK, S.L.REKIN HIRIGINTZ HITZARMENA.-

San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanak burutzeko Udala urbanizazio proiektua burutzera dihoa. Gune horretako hirigintza garapena kooperazio sistema bidez

egingo da eta gune horretako (18 H.A.ko 1 B.U.a) hirigintza aprobetxamendu guztiak Peñagarikano Etxegileak, S.L.k erosi dituela kontutan izanda, hitzarmena izenpetu da enpresa honekin eta osoko bilkura honetara aurkezten da bere berrespenerako.

Hirigintza hitzarmen honen zehaztapen nagusiak honako hauek dira:

Lehenengoa.- Lazkaoko Udalak 18 H.A.ko urbanizazioa burutuko du, Udal Osoko Bilkurak 2005eko ekainaren 30ean onartutako urbanizazio proiektuaren arabera. Proiektu honek 18 H.A.ko 1 B.U.an aurrikusitako eraikin berrira zerbitzuak eraman eta bidea emateko beharrezko urbanizazioa hartzen du bere barne.

Bigarrena.- Urbanizazioaren burutzea ahalbidetzeko, PEÑAGARICANO ETXEGILEAK, S.L.k bere jabetzako lursailetik 103,78 metro karratu ematen dizkio Lazkaoko Udalari, hitzarmen honen 1 eranskin gisako planoan azaltzen den moduan.

Hirugarrena.- PEÑAGARICANO ETXEGILEAK, S.L.k, hitzarmen hau izenpetu aurretik EHUN ETA BI MILA SEIEHUN ETA ZORTZI (102.608 €) EURO ordaindu dizkio Lazkaoko Udalari, hitzarmen honetako aurrekarietan aipatutako urbanizazio proiektuari jarraiki burutzen diren eta 1 B.U.ri dagozkion hiriztatze kostuen ordainketa kontzeptuan.

Laugarrena.- PEÑAGARICANO ETXEGILEAK, S.L. 18 H.A.ko 1 B.U.ri dagokion gainontzeko urbanizazioa burutzeko konpromezua hartzen du, gaur egun indarrean dagoen planeamenduak unitate horretarako aurrikusten duen etxebizitza eraikina eraikitzen denean edo etorkizuneko planeamenduak aurrikusitakoan, hala balegokio.

Bosgarrena.- Lazkaoko Udalak, 18 H.A.ko 1 B.U.ko Urbanizazio Proiektuaren lanak 2007ko abenduaren 31 baino lehen amaitzeko konpromezua hartzen du.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Hitzarmen hau berrestea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea hitzarmen honen zehaztapenen betetzetik eratorritako dokumentu publiko nahiz pribatuak izenpetzeko.

VI.- ENPARA-HANDI INGURUKO GUNEKO LUR-JABEEKIN HIRIGINTZ HITZARMENA.-

Jarraian Enpara-Handi (Enpaundi) inguruko gunearen jabeekin izenpetutako hirigintza hitzarmena ekartzen da Osoko Bilkura honen aurrera, honek hitzarmen hau berretsi dezan.

Hirigintza hitzarmen honen zehaztapen nagusiak honako hauek dira:

LEHENENGOA.- LAZKAOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO BERRIKUSKAKETA DOKUMENTUAN JASOKO DIREN 13 H.J.A. - ENPAUNDIKO ZEHAZTAPENAK.-

Lazkaoko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuskaketa dokumentuan, eransten den planoan 3 poligonoko 110, 111, 112, 113, 114 eta 115 lursail moduan identifi-

katutako lurrak urbanizatzeko gai den lurzoru moduan sailkatuko dira eta 13 H.J.A. – Enpaundin barneratuko dira. Gunearen gutxi gora-beherako azalera 41.795,00 m² da eta gutxi gora-behera 35.609 m²tako aprobetxamendua du. Eransten den planoak izaera orientatiboa du.

Aipatu eremuan kontsolidatuko diren eraikinak daudela kontsideratuz, Arau Subsidiarioetako Berrikuskaketa dokumentuko eremuko fitxaren zehaztapenetan, Zatikako Egitasmoak 2 Unitate mugatuko dituela xedatuko da, eta honela gaur egun dauden eraikinak eta 113 eta 114 zenbakidun lursailetan kokatzen direnak, Burutze Unitate bat osatuko dute eta eraikuntzak okupatu gabeko gainontzeko azalerak planeamendu eta kudeaketako bigarren-go eremua - dokumentu honen ondorioetarako azken honi hemendik aurrera 2 B.U.a izena emango zaio.

2 B.U.an guztira 270 etxebizitza baimenduko dira, eta hauetatik 204 prezio librekoak izango dira eta gainontzekoak Lazkaoko Udalarekin hitzartutako prezioko etxebizitzak izango dira. Eraikuntza perfila honako hau izango da: garaje erabilerako soto solairua edo solairuak eta etxebizitza erabilerako behe solairu eta altuerako lau solairu. Etxebizitza bakoitzak gutxienez garajeko plaza bat izan beharko du sotoan.

Bestalde eta aplikagarria den legerian ezarritako zehaztapenen aplikazioan, 810,00 m²ko azalera minimoarekin gizarte erabileretarako eta 288,00 m²koa erabilerako tertziarioetarako erreserbak ahalbideratuko dira.

Azkenik, 2 B.U.ari egozgarria den urbanizazio zama moduan ezarriko da, aipatu unitatea eta Gurutze aldera erreka beste alde lotuko dituen eta ibilgailu eta oinezkoen transitorako gai izango den zubi baten eraikuntza eta baita ere bariantetik bereizitako HJAren bi espazioak eta Antzalde guneko oinezko bidea batuko dituen oinezko bidea.

Lazkaoko Udala, hitzarmen hau izenpetzen den egunetik kontatzen hasitako hilabete bateko epean, Lazkaoko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuskaketa dokumentuari hasierako onarpena ematera behartzen da eta halaber bere ahalmenekoak diren gainontzeko izapideak eta onarpenak arreta maximoarekin egitera.

BIGARRENA.- ZATIKAKO EGITASMOA, URBANIZAZIO PROIEKTUA ETA OREKAZKO-BANAKETARAKO DOKUMENTUA.-

Planeamendu integralaren dokumentuaren aurrikuspenak garatu beharko dituen Zatikako Egitasmoa, jabetzak aurkeztuko du Lazkaoko Udaletxean, bere izapidatzerako, Arau Subsidiarioen Berrikuskaketa dokumentuari hasierako onarpena ematen zaionetik kontatzen hasitako hilabete bateko epean.

2 B.U.ko Urbanizazio Proiektua eta Konpentsazio Batzordearen Estatutu eta Jarduketako Oinarriak Lazkaoko Udalak Zatikako Egitasmoari behin behineko onarpena ematen dionetik kontatzen hasitako hilabete bateko epean aurkeztuko dira Udaletxean.

Zatikako Egitasmoari eta Estatutu eta Oinarrien Proiektuari behin betiko onarpena ematen zaienean, Batzordearen eraketa eskritura eta Konpentsazio Proiektua Udal Administrazioaren aurrera aurkeztuko dira honek ezarritako epeetan.

HIRUGARRENA.- KONPENTSAZIO PROIEKTUAREN ZEHAZTAPENAK.-

Konpentsazio Batzodeak formulatutako orekazko-banaketa dokumentuan, beste aurrikuspen batzuen artean, honako hauek jaso beharko dira:

- 195 etxebizitza barneratuko dituen lursail eraikigarrietako jabe pribatuei esleipena, haueetatik 147 salmenta librekoak izango dira eta gainontzeko 48ak hitzartutako prezioak.
- 75 etxebizitza barneratuko dituzten lursail eraikigarrien esleipena Lazkaoko Udalari, haueetatik 57 prezio librekoak izango dira eta gainontzeko 18ak hitzartutako prezioak. Esleipen honekin betetzat jotzen da irabazizko aprobetxamenduaren %10 administrazioari ematearen betebeharra.

Urbanizazio zamei dagokionean, 75 etxebizitzetatik 20en lurzorua zama horren ordainketatik libre geldituko dira. Gainontzeko 55 etxebizitzak -13 hitzartutako prezioak eta 42 prezio librekoak- dagozkien proportzioan hartuko dute parte urbanizazio gastuetan.

Hitzartutako prezioak etxebizitzak dagozkien proportzioan hartuko dute parte urbanizazio gastuetan, eta zenbateko honek etxebizitzen salmentako azken prezioaren %12a ezin ezingo du inoiz gainditu.

LAUGARRENA.- HITZARTUTAKO PREZIOKO 44 ETXEBIZITZEN SUSTAPEN ETA ERAIKUNTZA.-

Lurraren jabegoak hitzartutako prezio erregimeneko 48 etxebizitza eraiki eta besterenduko ditu, hala nola aurrikusten diren hauei itsatsitako elementuak.

Etxebizitza hauen besterentzea Lazkaoko Udalak emandako zerrendan azaltzen diren pertsonen egingo zaie, eta beraz etxebizitza hauetako etorkizuneko jabeen hautaketa prozesu guztia Udal Administrazioak bideratutakoa izango da.

Hitzartutako prezioak etxebizitzen metro karratu erabilgarriaren gehieneko salmenta prezioa Babes Ofizialeko Etxebizitzen moduluaren 1,9 izango da, obretako udal baimena emateko unean indarrean dagoen modulua aplikatuz. Itsatsitako prezioa zehazteko -garajeak eta trastelekuak, bere kasuan-, babes ofizialeko etxebizitzen prezioetarako erabiltzen dituen erizpide berberak jarraituko dira.

BOSGARRENA.- HITZARTUTAKO PREZIOKO ETXEBIZITZEN SUSTAPEN ETA ERAIKUNTZARAKO EPEAK.-

Jabegoa ondorengo epeak betetzera behartzen da:

- A) 48 etxebizitzak eraikitzeako proiektua edo proiektuak Udaletxean aurkeztea: konpentsazio proiektuaren behin betiko onarpena ematen zaionetik 6 hilabete.
- B) 48 etxebizitzen eraikuntza lanen amaiera eta erosleei ematea : obrak hasteko baimena ematen den hurrengotik kontatzen hasi eta 22 hilabeteko epea.

SEIGARRENA.- HITZARMEN HONETATIK ERATORRITAKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN SUBROGAZIOA.-

Hitzarmen hau izenpetzen duten jabeek, izan ditzazketen beren finken eskualdaketa-tan, dokumentu honetatik datozen eskubide eta betebeharrak konstaraziko dituzte, titular berriak beraietan subrogatuz.

ZAZPIGARRENA.- MENPEKOTASUNA.-

Hitzarmen honen baitan alderdiek hartzen dituzten betebeharrak Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenak Lazkaoko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuskaketa dokumentuari behin betiko onarpena emateari baldintzatzen dira, 13 H.J.A.-Enpaundi-ri da-gokionean, dokumentu honetan azaltzen diren aprobetxamendu eta zamekin. Edozein alda-keta edo murrizketa, bertan behera gelditzea darama berekin aurrikuspen berriak ezartzen ez diren bitartean.

Halaber, Lazkaoko Udalak, dokumentu honetan azaltzen diren terminoetan eta bal-dintzapean, Urbanizazio Proiektuari eta Konpentsazio Proiektuari behin betiko onarpenak emateari baldintzatzen da.

Azkenik, esan, hitzarmen honek erabateko balioa izan dezan, berau Lazkao Udalaren Osoko Bilkurak berretsia izan beharko duela.

ZORTZIGARRENA.- HITZARTUTAKO PREZIOKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA LA-NEN GAINBEGIRAKETA.-

Jabegoak ontzat ematen du, berak sustatuko dituen hitzartutako prezio erregimene-ko 48 etxebizitzaren eraikuntza lanak Udal Administrazioak gainbegiratuak izatea.

Gainbegiraketa honek izendatzen dituen tekniko edo teknikoen bidez egingo da eta hauen kostea ezin izango da jabegoaren gain bota.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien al-deko botuekin, hitzarmen honen izenpetzea berretsi egiten du.

VII.- ARAU SUBSIDIARIOETAKO BERRIKUSKETAREN HASIERAKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udala, Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuskaketa izapida-tzen ari da. Dokumentuaren erredaktatzailea Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak osatzen duten taldea da.

Udal Osoko Bilkurak, 2004ko azaroaren 25ean egindako batzaraldian, Arau Subsidiarioen Berrikuskaketa gaiaren inguruan, honako erabakiak hartu zituen:

1. Jendaurreko erakustaldian jasotako iradokizunak txosten teknikoan proposatu mo-duan estimatu, desestimatu eta ebaztea.
2. Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuspenaren erizpide, helburu eta irtenbide orokorrak onartzea.

3. Idazle teknikariei, estimatutako iradokizunak hala nola ingurumen eraginaren alde aurreko txostenak kontutan izanik proposamen dokumentua idatz dezaten agintzea.”

Bestalde eta 2004ko abenduaren 29ko alkatetzaren ebazpen bidez, AA.SS.en berrikuskaketaren Aurrerapenaren Ingurumen Gaietako Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketa 30 lanegunetako denboraldian jendaurrean jartzea erabaki zen. Jendaurreko denboraldi honetan jasotako iradokizunak ere proposamen dokumentuan jasoak izan zitezten agindu zitzaion idazle teknikari taldeari.

Idazle teknikariek, udalaren agindua betez proposamen dokumentua egin eta Udaletxe honetan aurkeztu dute eta Hirigintza Batzordean aztertua izan da.

Alkateak dokumentuaren azalpena egiten du. Esaten du Larreategi guneari dagokionean bertako lurjabeekin hitzarmen bat izenpetzea adostu dela baina oraindik ez dela izenpetu, eta izenpetzera iritsiko ez balitz, berrikuskaketa dokumentu honen behin behineko onarpena ematerakoan, berak gune hau atzera lehengo egoeran uztea planteatuko lukeela.

Olaso zinegotziak (PP) dokumentuaren kopia bat esketzan du.

Alkateak erantzuten dio kopia hori izango duela.

Goenaga zinegotziak (EA) esaten du dokumentu honi baiezkua emango diotela baina beraiek ere dokumentuaren kopia bat nahiko luketela eta dokumentua ondo aztertutakoan alegazioen bat aurkeztea ez dutela baztertzen.

Proposamen dokumentua aztertu ondoren eta Hirigintza Batzorde Informatzailean proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 11 botu, eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botuekin, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuskaketa honi hasierako onarpena ematea.
- 2.- Hirigintzako Planeamendu Arautegiaren 120. artikulua xedatutakoa jarraiki, etenda gelditzen da baimenen ematea planeamendu berriak indarrean dagoen hirigintza erregimena aldatzen duen udalerriko gune guztietan.
- 3.- Berrikuspen dokumentua, Ingurumen Gaietako Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketarekin batera hilabeteko denboraldiz jendaurrean jartzea, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz.

VIII.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du han barneratzen ziren zenbait kontzeptu direla eta, aurrekontuaren aurka bozketu baldin bazuten ere, aldaketa honetan barneratzen diren inbertsioekin ados daudela eta aldaketa proposamena bidezkoa iruditzen zaiola eta alde bozkatuko duela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako partaide guztien aldeko botuekin honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II VI	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak Inbertsio errealak	12.000,- € 1.139.000,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.151.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako gerakina	1.151.000,00 €
GUZTIRA		1.151.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IX.- UDAL LANGILEEN LAN-BALDINTZEN HITZARMENA (UDALHITZ).-

2006ko martxoaren 9an, EUDEL alde batetik eta ELA, CC.OO eta UGT sindikatuak bestetik, UDALHITZ izenez ezagutzen diren Euskadiko Tokiko Erakundeen pertsonal funtzionario eta Lan Hitzarmeneko langileen Lan Baldintzak arautzeko Hitzarmen Ereduak eta Lan Harremanen Protokolo Markoa adostu zituzten.

Horren aurrean Lazkaoko Udalak, 2006ko maiatzaren 18ko alkatetzaren ebazpen bidez, pertsonal funtzionario eta lan hitzarmeneko pertsonalaren lan baldintzak negoziatzeko mahai negoziatzaileak irekitzea erabaki zuen.

Negoiazio mahai horietara erakunde sindikalei deitu zaie, eta hauek gain udalaren pertsonalaren ordezkariak hartu dute parte.

Estensoro zinegotziak, Pertsonaleko Batzordearen eta mahai negoziatzailearen presidente gisa esaten du mahai negoziatzailean, EUDEL eta sindikatuen artean hitzartutako UDALHITZ akordioaz gain, langileen ordezkariak bestelako hainbat eskakizun aurkeztu zituztela baina esan zitzaizela udala ez zihoala UDALHITZetik kanpoko puntuak onartzera, azken hogeitaz jarraitu den bidetik udal honek beti EUDELek eta sindikatuak adostutakoa onartu duelako hortik kanpo atera gabe. Gehitzen du udalak bai eskeini diela langileei birrantolaketa azterketa berri bat egitea, eta birrantolaketa azterketa horren ondorioz baloraketa berri baten beharra ikusiko balitz eta baloraketa horren ondoriozko emaitza gehikuntza, udal hau bide hori jarraitzeko prest legokela, baina baita ere udal honek hori aurrera eramateko borondatea azaldu baldin balezake ere ezin duela konpromezurik hartu ze datorren urtean udal hauteskundeak izango dira eta birrantolaketa azterketa legegintzaldi honetan egingo balitzake ere, birrantolaketa horren ondoriozko baloraketa posible hori egitekotan datorren legegintzaldian egin beharko litzateke eta baloraketa hori egitea ala ez datorren hauteskundearen ondoren sartzen den udalaren esku egongo da. Gehitzen du Estensoro zinegotziak langileek udalaren konpromezua eskatzen bazuten ere berak adierazi dezakena hemen hitzegindakoa aurrera eramateko bere alderdiaren borondatea dela eta datozen hauteskundeetan bere alderditik sartuko direnei borondate honen berri emango zaienaren adierazpena osoko bilkura honen aurrean azaltzea hala jasota gera dadin.

Negoiazio mahaian hitzegindakoaren arabera, osoko bilkurara bere onarpenerako ekartzen dena, UDALHITZ dokumentuaz gain, Lazkaoko Udalak langileen lan baldintzen inguruan aurretik onartuta zeuzkan honako puntu hauen berrespena da:

1.- Berariazko disponibilitatea kontzeptua sortuz 1999ko maiatzaren 20ko Osoko Bilkuran hartutako akordioa eta 2000ko martxoaren 7an, 2002ko uztailaren 18an, 2003ko martxoaren 19an eta 2004ko maiatzaren 26an hartutako berariazko disponibilitatearen berrikuskaketa akordioak.

2.- Igande eta jaiegunetan presazko udal zerbitzuak emateagatik ordainketa kontzeptua, 1997ko ekainaren 19ko osoko bilkuran onartutakoa eta kontzeptu honi dagokionean 1998ko otsailaren 26an hartutako berrikuskaketa akordioa.

Osoko Bilkurak, gaia eztabaida ondoren eta Hazienda, Pertsonal eta Antolaketa Batzordearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- 2006ko martxoaren 9an, EUEDEL alde batetik eta ELA, CC.OO eta UGT sindikatuak bestetik adostutako Euskadiko Tokiko Erakundearen Lan Harremanen Protokolo Markoa onartzea.

2.- 2006ko martxoaren 9an, EUEDEL alde batetik eta ELA, CC.OO eta UGT sindikatuak bestetik, adostutako Hitzarmen Ereduak jarraiki Lazkao Udalaren pertsonal funtzionario eta lan hitzarmeneko langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmenak onartzea.

3.- Aurreko puntuetan onartutakoa, UDALHITZ izenez ezagutzen dena, baino lehen Lazkao Udalak Osoko Bilkuran bere langilegoarentzat onartuta zeuzkan ekonomi eta gizarte baldintzak eta akordio hauen azalpen zatian zerrendatzen direnak, orain onartzen diren akordioetan barneratzea.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.